



ENERGIA, BIZITZAREN MOTORRA

2023-2024 ikasturtea TOLOSALDEA



ESKOLAKO
AGENDA
2030



Memoria pixka bat egingo al dugu?

Ingurumen Hezkuntza

Ingurumen Hezkuntza, ingurumena babestu, defendatu eta hobetzeko premia gisa sortu da, natura eta gizarte esparrutik. Denborak aurrera egin ahala, behar horiek premiazkoagoak bihurtu dira, eta Eskolako Agenda 2030 sortu da, Garapen Jasangarrirako Helburuak betetzeko.



Eskolako Agenda 2030

EA2030ak hiritartasun ahaldua eta kontzientzia ekosoziala duena sortu nahi du, ikasleek aktiboki parte har dezaten beren udalerriak gero eta jasangarriagoak izateko lagunduz.



2022-23 ikasturtean

GAIA: *Energia, bizitzaren motorra*

Herri diagnostikoa egin ondoren proposamenak udaletxera eraman genituen.
23-24 ikasturtean garatzeko esku-hartze plana lantzen hasi ginen.

2023-24 ikasturtean zer?

1

- Esku-hartze proposamenari berriro ekitea
- Hasierako Udal Eskola Foroa

2

- Esku-hartze planaren garapena

3

- Eskolarteko foroa
- Udal-foroa
- Balorazioa



7 ENERGIA
IRISGARRIA ETA
EZ KUTSAGARRIA



ENERGIA, BIZITZAREN MOTORRA

2023-2024 ikasturtea TOLOSALDEA



ESKOLAKO
AGENDA
2030

ESKU-HARTZE PLANAK

Ikastetxeek, energiaren inguruan, esku hartze planak diseinatu dituzte eta herrira begira ondorengo ekintzak aurreikusten dira.


LASKORAIN IKASTOLA

Gabonetako
2.eskuko
"merkatu txikia" aztertu



FLEMING HERRI ESKOLA

Energia
aurrezteko ohitura
onak



IRURAKO IKASTOLA

Energia
aurreztu!



HERIKIDE ESKOLA

Energia kontsumoa
murrizteko keinuak eta
ziurtagiri energetikoa



ZUBIMUSU IKASTOLA

Herrian oinez
mugitzearen alde!



ANOETAKO IKASTOLA

Udala eta ikastola
herria piztuz!



SAMANIEGO HERRI ESKOLA

Haur Hezkuntzako
eraikin bioklimatikoa



ERNIOBEA BHI

Energia
aurrezteko ohitura onak



UZZTURPE IKASTOLA

Energiaren kontsumo
arduratsurako gakoak



MUÑAGORRI HERRI ESKOLA

Energia berriztagarriak
herrian



ADUNAKO HERRI ESKOLA

Energia jasagarria



P.M. OTAÑO HERRI ESKOLA

Energia murriztea
nire kontua ere bada.



Tolosaldean badago energiaren informazioa eta online aholkularitza zerbitzua:

<https://www.tolosaldeagaratzen.eus/proiektuak/energia-bulegoa/>



ENERGIA, BIZITZAREN MOTORRA

2023-2024

TOLOSALDEA



2023-24 ikasturtean gure herrietan zer?



Herrietan, ESKU- HARTZE planak aurrera eraman dira.



ANOETA


Ikastolaren Egunerako postu bat eta hormairudi bat prestatu da ikasleek egin dituzten ekintzak azalduz. Baita udalak herri-mailan energiaren alorrean egindako aurrerapausoak ere.



TOLOSA

Trianguloan, "Energia azoka"n, egindako lanen erakutsi dira. Landutako gaiak hauek izan dira:

- 2. eskuko aukera
- Eskola jasangarria
- Aurrezteko keinuak
- Efizientzia energetikoa
- "Passive House"



IRURA


Irurako ikastolan lanketa ezberdinak egin dituzte:

- Energia aurrezteko aholkuekin eskuorri bat sortu dute.
- Udaltzaingoarekin kale-arauak errepasatu dituzte.
- Udaletxe berria bisitatu dute.



ASTEASU

Udalak herrian alor energetikoan egin dituen aurrerapenak zabaltzeko kartelak egin dira.



AMASA-VILLABONA

Maiatzaren 14 eta 15rako herriko eskolen artean egitarau bat osatu dute:

- Eskuorri banaketa
- Kartel erakusketa
- Hitzaldia



BERASTEGI

Udalak herrian egindako energiaren inguruko aurrerapenak ezagutzera emateko kartelak frontoian jarri dira herritarrentzat ikusgarri egon daitezen.



ADUNA

Adunan lehenik energia aurrezteko eskuorri bat osatu dute aholku orokor batzuekin. Ondoren kale-inkestak egin dituzte ikasleek.



ZIZURKIL

Zizurkilen zenbait ondasunen kontsumoaren azterketa eman dute. Ondoren, hauek modu egoki batean erabiltzea bultzatzeko, marrazki lehiaketa egin dute.



IBARRA

Energia kontsumo arduratsua bultzatzeko kanpaina bat prestatu dute bideo laburrak erabiliz. Bestetik, energia iturri ezberdinen ezaugarrien inguruko hormairudiak egin dituzte.

